

Erf.: Busturialdeko Ur Partzuergoa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko espedientea.
Tx. zk.: 2021/97

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, idazkari akzidental funtzinoetan, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Gaia: Busturialdeko Ur Partzuergoa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko espedientea.

Espediente tramitatuzailea: Idazkaritza Saila

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0206 (2021)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012ko ekainaren 25ean, Udal Osoko Bilkurak, Busturialdeko Ur Partzuergoan sartzeko eskaria egitea erabagi eban. Partzuergoan sartzeko erabagia, 2012ko uztailaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zan eta, ordutik, ur eta estolderia derrigorrezko zerbitzuak Busturialdeko Ur Partzuergoaren bidez emoten dira.

Bigarrena: 2021eko abuztuaren 31n, Busturialdeko Ur Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko, abuztuaren 2an hartutako hasikerako onarpenaren jakinarazpena jaso zan udalean.

Hirugarrena: 2021eko irailaren 7an, kontu hartzaileak txostena emon eban.

Laugarrena: 2021eko irailaren 9an, Zerbitzu Saileko teknikariak txostena emon eban.

Bosgarrena: 2021eko irailaren 13an, Idazkaritza Saileko AOTk erabagi proposamena emon dau.

Bigarrena: Espedientean, besteak beste, hurrengoak jaso dira:

- Busturialdeko Ur Partzuergoaren Kotsailu Nagusiaren erabagiaren jakinarazpena eta bere eranskinak.
- Kontu hartzailearen txostena.
- Zerbitzu Saileko teknikariaren txostena.
- Erabagi proposamena



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500079ED900M2X7H6V7P11

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2021
10:03:37

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0206
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500079ED900M2X7H6V7P11



1. Oinarri juridikoak

1.1. Aplikagarria den araudia

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa (118. eta 119. artikulua)
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (22.2.b) eta 47.2.g) artikulua).
- 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, toki-gobernua eguneratzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren arrazionalizatzeari eta jasangarritasunari buruzkoa.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki erakundeei buruzko legea (102.,104. eta 105. artikulua).
- 2017ko abenduaren 27an aldatutako Busturialdeko Ur Partzuergoko estatutuak (2018ko apirilaren 27ko BAO n argitaratuak).

1.2. Azterketa juridikoa

Partzuergoari buruz honakoa dino 40/2015 Legeak:

118. artikuluan: "1. Los consorcios son entidades de derecho público, con personalidad jurídica propia y diferenciada, creadas por varias Administraciones Públicas o entidades integrantes del sector público institucional, entre sí o con participación de entidades privadas, para el desarrollo de actividades de interés común a todas ellas dentro del ámbito de sus competencias.

2. Los consorcios podrán realizar actividades de fomento, prestacionales o de gestión común de servicios públicos y cuantas otras estén previstas en las leyes."

119. artikuluan: "1. Los consorcios se regirán por lo establecido en esta Ley, en la normativa autonómica de desarrollo y sus estatutos.

2. En lo no previsto en esta Ley, en la normativa autonómica aplicable, ni en sus Estatutos sobre el régimen del derecho de separación, disolución, liquidación y extinción, se estará a lo previsto en el Código Civil sobre la sociedad civil, salvo el régimen de liquidación, que se someterá a lo dispuesto en el artículo 97, y en su defecto, el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio"

Eta 2/2016 Legeak honakoa:

102. artikuluan: "1. Udal-elkarteak eta toki-erakundeen bestelako elkarte-motak eratu ahal izango dira, kudeaketa partekatua egiteko baliabide egoki gisa, kasu hauetan: lege honen 17. artikuluan aurreikusten diren eremu materialetatik eratorritako obrak egiteko eta zerbitzu publikoak eskaintzeko, udalek edozein kasutan eskaini beharra daukaten zerbitzuak emateko, eta azken zerbitzu horiei



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E500079ED900M2X7H6V7P11

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2021
10:03:37

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0206
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500079ED900M2X7H6V7P11



dagokienez ukitutako udalak zerbitzuaren kostu efektiboetan edo kalitate-estandarretan hobekuntza dakarren soluzio instituzional bat eman behar duenean, betiere lege honetan ezartzen denarekin eta dagokion foru-arauegiaz zehazten denarekin bat etorritik”.

104. artikulua: “1. Udalerriek eta gainerako toki-erakundeek partzuergoak eratu ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuekin, tokiko zerbitzu publikoak emateko lanean lankidetzak ekonomiko, tekniko eta administratiboaren inguruan guztien intereseko helburuak lortzeko. Beste administrazio publiko batzuek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak ere izango dute horrelako partzuergoetan parte hartzeko aukera, baldin eta partzuergoak osatzen dituzten administrazio publikoen interesekin bat datozen interes publikoak badituzte.

2. Partzuergoa izango da udalerrien gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan kudeatzeko hobetsiko den formuletakoa bat, beharrezkoa jotzen denean udalerriaren aldetik zerbitzuaren egiazko kostuak edo kalitate-estandarrek hobetuko dituen erakunde-mailako konponbide bat eskaintzea, lege honetan aurreikusitakoaren eta dagokion foru-araudian zehaztuko denaren arabera.

Era berean, partzuergoa izango da udalerrien gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan kudeatzeko hobetsiko den formuletakoa bat, foru-aldundia, lege honetan aurreikusitakoaren eta indarreko legerian ezarritakoaren arabera, koordinazio-ahalmenak baliatu beharrean gertatzen denean.

3. Partzuergoek, beren eskumeneko zerbitzuen kudeaketarako, zuzeneko kudeaketa edo zeharkako kudeaketa baliatu ahal izango dute, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuan aurreikusitako eren bidez. Murrizketa hori ez zaie aplikatuko, ordea, lehendik sortuta dauden partzuergoei, baldin eta superabit- edo oreka-egoeran badaude edo ustiaketa-emaizta positiboak badituzte.

4. Edozein partzuergo eratzen dela ere, lehenengo, eraketan parte hartzen duen toki-erakundearen efizientzia ekonomikoa eta finantzen jasagarritasuna zaindu behar dira. Foru-aldundien ardura izango da, finantza-tutoretzako eskumenak baliatuz, partzuergoa mendean duen toki-erakundeari printzipio horiek betearaztea”.

Eta 105. Artikulua: “1. Partzuergo bat osatu behar duten zuzenbide publikoko erakundeen lurralde-eremuak lurralde historikoaren eremua gaintzen ez duenean, partzuergoaren eraketa egingo da toki-araubidearen oinarritzko legeriaren eta dagokion lurralde historikoko foru-organoaren araudiaren arabera eta lege honi jarraituz aplikatzekoak dituen irizpideen arabera.

2. Artikulu honetan aurreikusita ez dagoenerako, partzuergoen araubide juridikoa izango da oinarritzko legerian izaera orokorrarekin ezarritakoa eta foru-araudian jasotakoa, eta, edonola ere, administrazio publiko bati atxikita egon beharko dute”.

Beraz, erabagia hartzerakoan, kontuan eduki beharko da zerbitzuaren egiazko kostuak edo kalitate-estandarrek hobetuko dauzen erakunde-mailako konponbidea eskaintzea.

Eta horregaz lotuta, ezinbestekoa da administrazioak jarraitu beharreko printzipioak zeintzuk diran gogorarazotea:

1. Las Administraciones Públicas sirven con objetividad los intereses generales y actúan de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación, con sometimiento pleno a la Constitución, a la Ley y al Derecho.

Deberán respetar en su actuación y relaciones los siguientes principios:

a) Servicio efectivo a los ciudadanos.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E500079ED900M2X7H6V7P11

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2021
10:03:37

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0206
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500079ED900M2X7H6V7P11



- b) Simplicidad, claridad y proximidad a los ciudadanos.
- c) Participación, objetividad y transparencia de la actuación administrativa.
- d) Racionalización y agilidad de los procedimientos administrativos y de las actividades materiales de gestión.
- e) Buena fe, confianza legítima y lealtad institucional.
- f) Responsabilidad por la gestión pública.
- g) Planificación y dirección por objetivos y control de la gestión y evaluación de los resultados de las políticas públicas.
- h) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados.
- i) Economía, suficiencia y adecuación estricta de los medios a los fines institucionales.
- j) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.
- k) Cooperación, colaboración y coordinación entre las Administraciones Públicas.

Bestalde, Busturialdeko Ur Partzuergoa beste erakunde batean integratzeari buruz, honakoa dinoe erakundearen Estatutuek 43. artikuluan: "Partzuergoaren desegitea honako hauetan egingo da:

4. Partzuergoaren eskumenekin bat datozen Herri-edo Erakunde Pribatu batekin baterabildu, bereganatu edo barne-sartzen denean. Horrelakoetan Kontseilu Nagusiaren kideen gehiengo soilaren aldeko erabakia eta partzuerturiko Erakunde gehiengoak onestea beharko da".

Hori horrela, Bermeoko Udalak, erabagi horren ganeko bere erabagi hartu behar dau.

2. Eskumenari buruz

7/1985 Legearen 22.2.b) artikulua gaz bat, erabagia hartzeko ahalmena Osoko Bilkureari jagoko.

Erabagia hartzeko beharrezko gehiengoari jagokonez 7/1985 Legearen 47.2.g) artikulua arabera, gehiengo osoa da.

3. Ondorioak

Busturialdeko Ur Partzuergoa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzea onartzeko proposamenari **aldeko txostena** egiten jago.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalterik gabe.

Bermeon, 2021eko irailaren 13an

Karmele Muñoa Arrigain
Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500079ED900M2X7H6V7P11

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2021
10:03:37

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0206
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500079ED900M2X7H6V7P11

